BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5416

EBAZPENA, 2011ko urriaren 3koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinen bidez Gizartean Babesik Gabe edo/eta Gatazkan dauden Adingabeen Kasuetan Esku Hartzeko eta Bitartekotza Egiteko Masterraren bosgarren promozioa egiteko laguntzak ematen baitira.

Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2011ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez, Deustuko Unibertsitateak antolatuta Gizartean Babesik Gabe edo/eta Gatazkan dauden Adingabeen kasuetan Esku Hartzeko eta Bitartekotza Egiteko Masterraren bosgarren promozioa egiteko laguntzetarako deia egin zen.

Ebazpen horretako 12. artikuluan ezartzen da eskaerak Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebatziko dituela, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Ebazpenaren bidez, horretarako izendatutako aukeraketa-batzordearen proposamenaren arabera.

Aurreko guztiagatik, eta aukeraketa-batzordearen proposamena aintzat hartuta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean aipatzen diren pertsonei laguntzak ematea, Gizartean Babesik Gabe edo/eta Gatazkan dauden Adingabeen Kasuetan Esku Hartzeko eta Bitartekotza Egiteko Masterra egiteko. Laguntzaren zenbatekoa mila, zazpiehun eta laurogeita bat euro eta hogeita bost zentimokoa (1.781,25) izango da, diru horretatik mila laurehun eta hogeita bost (1.425) euro 2011. urterako ordainketak egiteko izango da eta gainerako zenbatekoa (356,25) 2012. urteko ordainketetarako. Diru-laguntzak ordaintzeko, Gizartean Babesik Gabe edo/eta Gatazkan dauden Adingabeen kasuetan Esku Hartzeko eta Bitartekotza Egiteko Masterraren bosgarren promozioa egiteko laguntzetarako deia egin duen Emakundeko zuzendariaren 2011ko uztailaren 7ko ebazpenaren 14. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezar dakioke Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke zuzenean dagokion Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 3a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

ERANSKINA

ONURADUNEN ZERRENDA

Raúl Pico Jabato
Joana López Vázquez
Janire García Avendaño
Oiana Vélez de Mendizabal Ruiz
Irene Sánchez Urruticoechea
Ainhize Urresti Sistiaga
Alba Miguel Gómez
Laura Mercado Díez
Maider Gorostiza Sáenz de Cortazar
Iker Irazabal Martínez
Nahia Castresana Arteche
Amaia Ormaechea Orbe
Idoia Martínez de Lahidalga Ibarrola
Juan Zalduondo Etxeandia
Arrate Pinedo Bustamante
Xabier Ibarra Beotegui